

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### **Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko otsailaren 22an hartutako erabakiaren laburpena: Garapenean laguntzeko proiektuak egiteko 2019ko diru-laguntzetarako deialdia**

BDNS(Identif.): 441490

Diru-laguntzak emateari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8 a artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitara ematen da; horren testu osoa Espainiako Diru-laguntzen datu-basean (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>) kontsulta daiteke.

#### **Lehen. Onuradunak**

Irabazi-asmorik gabeko gobernuz kanpoko organizazio edo entitateek eskatu ahal izango dute diru-laguntza, baldin eta beren jarduerak deialdi honen xedearekin bat badatoz, eta Gasteizen duten presentzia eta jardunari eusten badiote.

#### **Bigarrena. Helburua**

Honako hauek dira deialdi honetan lagunduko diren proiektuak:

- a. UK atala: 2017an hasitako urteko proiektu kateatuen jarraipena.
- b. US atala: Azpiegituren eta ur- eta saneamendu-sistemen arloko proiektuak, eta proiektu teknikoak egitea.
- c. GE atala: Giza eskubideak babesteko proiektuak.
- d. PT atala: Gehienez sei hilabeteko epean gauzatzekoak diren proiektu txikiak.

#### **Hirugarrena. Oinarri arautzaileak**

Gasteizko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko otsailaren 22an egindako ohiko bilkuran onartu ditu, eta ALHAOn argitaratuko dira.

#### **Laugarrena. Zenbatekoa**

Deialdiari 1.314.315,85 euroko aurrekontua egokitu zaio.

#### **Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea**

2019ko martxoaren 29ra arte, GE ataleko eskabideak.

2019ko apirilaren 12ra arte, US ataleko eskabideak.

2019ko ekainaren 14ra arte, PT ataleko eskabideak.

2019ko irailaren 26ra arte, UK ataleko eskabideak.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko otsailaren 22a

*Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Saileko zuzendaria*  
**ESTIBALIZ PEREDA SAGREDO**